



2022an % 40 egin du gora Santa Klara irlan eta Hondalean egiten diren jarduera didaktikoetan parte hartu duten ikasle-talde eta talde soziokultural kopuruak

Santa Klara irlako Hezkuntza Eskaintzako jardueretan parte hartu duten taldeen gogobetetze-maila bikaina da oraindik ere (batez besteko puntuazioa 4,3koa da, 5 puntutik).

"la Caixa" Fundazioak, CaixaBanken bidez, bere konpromisoa eta lankidetzaren berritu ditu Cristina Enea Fundazioak garatutako hezkuntza-proiektu honekin, eta arreta berezia jarri du gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden taldeetan.

Donostia, 2023ko maiatzaren 8a.- Cristina Enea Fundazioak Santa Klara irlaren ingurumen- eta kultur-aktiboak eta Hondalea obra ezagutzera emateko diseinatu eta koordinatutako 2022 Hezkuntza Eskaintzako jarduerari puntuazio 'bikaina' eman diete hezkuntza komunitateak eta eragile soziokulturalek. Zehazki, saio didaktiko horietan parte hartu duten 2.000 pertsona baino gehiagok, 80 taldetan antolatuta, batez beste 4,3 puntu eman dituzte 5etik, hala nola bisitaren antolaketa, iraupena, garatutako edukiak, erabilitako metodologia edo hezitzailearen lana puntuatuz.

Gogobetetze maila

Bisitaren antolaketa	4,47/5
Bisitaren iraupena	4,12/5
Landutako edukiak	4,29/5
Erabilitako metodologia	4,12/5
Ikasleen partehartzea	3,94/5
Hezitzailearen lana	4,53/5

2021eko denboraldian egindako esperientzia pilotuaren ondoren, non taldeak murriztagoak izan ziren eta osasun-egoeraren ondorioz egutegi laburragoa izan zuten, joan den 2022an Santa Klara irlako Hezkuntza Eskaintzak edukiera handitu eta jarduera-aldia hiru hilabetera luzatu ahal izan zuen. Horrela, eskola-taldeek eta talde soziokulturalek normaltasun osoz parte hartu ahal izan dute Hondalea obraren ingurune ingurumen- eta natura-aberastasuna ezagutzera eta balioan jartzera bideratutako programa aitzindarian. Tailerrak, bisita gidatuak eta jarduera didaktikoak eskola-ziklo guztietarako diseinatu dira, euskal hezkuntza-curriculumera eta kolektibo soziokulturalen premia



espezifikoetara egokituta. Eskema orokor horretan, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden taldeei arreta berezia eta erraztasuna ematea lehenetsi da.

Ondorioz, talde kopurua ia % 42 igo da aurreko urtearen aldean, eta parte-hartzaileen guztizko kopurua (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Heziketa Zikloak eta talde soziokulturalak) ia % 40 handiagoa izan da. «2022an Bigarren Hezkuntzako ikasleak izan dira nagusi jardueretan parte hartzeari dagokionez; guztira, 649 ikasle izan dira 26 taldetan antolatuta, eta aurreko urtean, berriz, talde ugariena Lehen Hezkuntzako izan zen, 683 parte-hartzaile eta 28 talderekin», azaldu du Jon Insausti Donostiako Udaleko Kultura eta Euskara zinegotzi ordezkariak.

2022 eta 2021 arteko partehartzearen konparaketa

Zikloa	2022		2021	
	Taldeak	Ikasleak	Taldeak	Ikasleak
Haur Hezkuntza	12	289	5	118
Lehen Hezkuntza	18	452	28	683
Bigarren Hezkuntza	26	649	5	125
Batx + Heziketa zikloak	11	253	15	354
Talde soziokultur.	19	478	9	215
Total	86	2.121	62	1.495

Taldeen jatorri geografikoari dagokionez, Insaustik adierazi bezala, «gehiengoa Donostiatik etorri da, % 68, eta % 32, berriz, gainerako lurralde historikotik».

Bestalde, nabarmendu behar da Hezkuntza Eskaintza honetan jasotako jarduerak doakoak direla ikastetxe eta kolektibo soziokultural guztientzat, "la Caixa" Fundazioak, CaixaBanken bidez, proiektuari emandako laguntzari esker. Gainera, lankidetzak horri esker, aurreko urtean baino % 46 handiagoa izan da kalteberatasun-egoeran eta gizarte-bazterketako egoeran dauden eta jardueretan parte hartzeko lekualdaketa finantzatzeko laguntza ekonomikoa jaso duten taldeen kopurua. Gainera, Cristina Enea Fundazioarekin sinatutako lankidetzak-hitzarmena berri dela iragarri du Ana Garibi Caixabankeko Iparraldeko Lurralde Zuzendaritzako Gizarte Ekintzako arduradunak, Santa Klara uhartean hezkuntza- eta gizarte- eta kultura-lan horrekin jarraitu ahal izateko, bai eta Hondalea erakusketa-lanarekin ere, aurreko urtean, guztira 20.000 euroko ekarpenarekin.

Santa Klara irlaren garbiketa boluntarioekin



Era berean, aurten, CaixaBank Boluntariotzaren, Donostiako Udalaren eta Cristina Enea Fundazioaren arteko lankidetzari esker, Santa Klara irla garbitzeko jardunaldia antolatuko da. Maiatzaren 14an, igandea, izango da, 10:00etatik 13:00etara, eta aldez aurretik izena eman beharko da, CaixaBank Boluntariotzaren edota Cristina Enea Fundazioaren webgunearen bidez. *«Gidari baten laguntzarekin, Santa Klara uhartera itsasontziz joango dira partehartzailleak, zeharkaldia aprobetxatuz Donostiako badiaren ezaugarri geologiko batzuk, uharteko ekosistemen balio naturala eta espazio berezi horri buruzko bitxikeriak ezagutzeko»*, arduradunek azaldu dutenez. Lehorreratu ondoren, *«parte hartzen duten pertsonen eskularruak eta poltsak emango zaizkie, eta hainbat sektoretan banatuko dira, segurtasuna bermatuz hondakinak biltzeko»*. Garbiketa amaitzean, *«bildutako hondakinak pisatu eta aztertuko dira, horretarako prestatutako edukiontzietan utzi aurretik»*. Azkenik, itsasontzia hartu eta hirira itzuli aurretik, otordu txiki bat eskainiko zaie sasoiko frutarekin eta ekoizpen ekologikoarekin. Ekintza hau CaixaBanken hilabete sozialaren barruan kokatzen da. Bertan, langileek, senitartekoek eta bezeroek boluntariotzako hainbat ekimenetan parte hartzen dute lurraldeko gizarte-erakundeekin.

2023ko Hezkuntza Eskaintza

Santa Klara irlako 2023ko Hezkuntza Eskaintza eskuragarri dago jada Cristina Enea Fundazioaren webgunean (www.cristinaenea.eus), Santa Klara bezalako ingurune natural pribilegiatu baten



hainbat alderdi balioesten eta ezagutarazten dituzten jarduerekin. Ikasturte honetarako, tailer eta jarduera hauek antolatu dira: 'Egun bat Santa Klaran' (4-8 urte), 'Irla misteriotsua' (8-12 urte), 'Santa Klarako altxorra' (12-16 urte) eta 'Santa Klara deskubritzen' (batxilergoa, heziketa zikloak eta talde soziokulturalak). Jarduera horien bidez, ikasleek uharteko faunarekin, florarekin, historiarekin eta geologiarekin lotutako alderdi garrantzitsuak landuko dituzte, bisitari-tipologia bakoitzari egokitutako eduki, azalpen eta metodologiekin.

Jarduerak doakoak dira, baina ez dute barnean hartzen uhartera joateko kostua. Maiatzaren 15etik ekainaren 30era eta irailaren 11tik urriaren 31ra bitartean egingo dira, eta erreserbak telefonoz egin behar dira (943483500 luz. 9719) edo cristinaeneabisitak@donostia.eus posta elektronikoaren bidez.